

GAU-JOLASA

Gauaren zapipean gozo neskatilla,
leio ertzean dago begi-ameslari,
maitez daukala goian illargi zurbilla.

Ames-jolas dagie biak, oso ixillik;
itzik bage itz dagie, arek oni soka;
biotz-miñaren leuna alkarri esanik.

Zer diñotsen alkarri, ixil, txutxu-mutxuz,
iñok ba al daki? Bira orain, bira gero
dabil neskatxa, izpi-soka gain dantzatuz.

Pozak arrotu dautsa osoan bularra,
illargia bait-dauka oiñetan etzuna
izara zuria lez zabal ta edarra.

Jolas dagi neskatxak, jolaslari ixilla,
gora ta beera, ziba iduri zelaian,
gora ta beera, ames-dantzari bipilla.

Eta unearen ertzez —ertz zorrotza!—
batean dira alkartu illargi ta neska.
Oi, zelako ots gozoa arein ezpan otsa!

Arte-txara ostean itzalia dozu
illargiaren mosu maitati zurbilla;
itun neskatxa ontan, bakarrrik da lotu.

Min-etsiaren mende dau idoro, ats urrik,
urrengo goiz-argiak; muzin, jolas bage,
begi biak ezo ta burua makurrik.

Arrezkeroz, iñok ez daki zer jazo zan;
baiña neskatx mindua ixillik, gauero,
leio ertzean jarri oi yatzu zelatan.

Igoiz